## ENE ADISKIDEA
### (Txango batez)

Goiz baten zan. Zerua arre...
Euri-tantak lur gaiñez...
Leia biziz eldu giñan,
Guztiok zure miñez.

Or, Urretxu'n, aurkitzean
dardar yakun biotza.
«Au al dozu adiskide»
egin eustien otsa.

Eta nik: «Bai, auxe! «Ordun
guztiok buru-utsik,
*Gernika'ko Arbola* abes
genduan biotzetik.

Zuri agurka gerora
sarri dabilkit amets
eta, adiskide zurrian,
gogoz oi zaitut gorets.

Euri-tantak bedarrean...
Odeiez zerua arre...
Esna, biotzak, eta, buru-uts
agurtu Iparragirre.

I.